

## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 45 MENDIAK

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MONTES

### SAILAREN MEMORIA

### MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

#### I. MEMORIA

Mendi Zerbitzua Araban dauden **mendietako** berezko ekosistemak zaintzeaz eta ekoizteaz arduratzen da programa honen barruan; mendi horiek 183.826 ha-ko azalera hartzen dute Araban, hau da, Arabako lurraldearen % 60,52; eta mendi publikoen hedadura, bestalde, 143.384 ha-koa da (mendien azaleraren % 78). Horrez gain, Mendi Zerbitzuak bere gain hartzen ditu **ehiza eta arrain baliabideak** bultzatzeko eta mantentzeko lanak, Arabako ur ibilguetako bizitza urtarraren kalitateari eusteko zereginak barne hartuta.

**Basoko kudeaketa jasangarriaren** helburua da mendi sistemetatik produktu eta zerbitzuetan errentagarritasun handiena lortzea, haien barruan funtsezkoa den bat sartuta: mendiko ekosistemekin loturiko biodibertsitate biologikoaren mantentzea, alegia.

Programaren aurrekontu partiden bitartez hurrengo ekintzak bideratzen dira: baso sistemak ahalik ondoan mantentzea, unada hautatuetan haziak hartzetik landare egokiak lortu arteko lanak; basoen berezko birsorkuntza sustatzea (Arabako garrantzia handia du, mendi publikoek hartzen duten azalera handiagatik); **osasun egoeraren** eta oreka biologikoaren jarraipena egitea; basoetako suteek duten eragina murrizteko prebentzioa, zaintza eta lanak; eta suteak ebakitzeko eremuak sortzea.

Arabaren **ondarekoak diren mendietan** eta Arabako Foru Aldundiak zuzeneko **partzuergoan dituen mendietan** egiten diren lanak beste hauetarako ematen diren **dirulaguntzekin** osatzen dira: nola mugak ezartzea, mugarriak jartzea eta plan teknikoak, hala toki erakunde txikiak eta partikularrek kudeatzen dituzten proiektu eta lanak; betiere, Europar Batasunaren arauen ondoriozko **laguntza planen** arabera; horretarako izapidetzen baitira planetan aurreikusitako dirulaguntzak.

#### I. MEMORIA

El Servicio de Montes atiende en las distintas facetas de este programa a las actividades de conservación y producción de los ecosistemas propios de los **montes**, que ocupan en Alava una superficie de 183.826 ha, que supone el 60,52% del territorio alavés, siendo la extensión de montes públicos de 143.384 ha (el 78% de la superficie de monte), así como a las facetas de promoción y mantenimiento de los **recursos cinegéticos y piscícolas**, incluyendo la permanencia de la calidad de la vida acuícola en los cursos y planos de agua de Alava.

La **gestión forestal sostenible** tiene como objetivo a obtener la máxima rentabilidad de los sistemas montanos en productos y servicios, incluyendo en éstos uno tan fundamental como es el mantenimiento de la biodiversidad biológica asociada a los ecosistemas montanos.

La consecución del mejor estado posible de los sistemas forestales, desde la obtención de semillas de rodales selectos hasta el logro de las plantas adecuadas, el fomento de la regeneración natural de los bosques, de tanta importancia en Alava dada la extensa superficie de montes públicos, el seguimiento del **estado sanitario** y del equilibrio biológico, la prevención, vigilancia y obras que disminuyan la incidencia de los fuegos forestales y la creación de áreas cortafuegos se canalizan a través de las partidas presupuestarias del programa.

Los trabajos en los **montes patrimoniales** de Alava y en los **montes consorciados** directamente por la Diputación Foral, se complementan con las **subvenciones** que se conceden para deslinde, amojonamiento, ordenación y planes técnicos, así como para proyectos y obras gestionados por las Entidades Locales Menores y los Particulares, de conformidad con los **Planes de Ayudas** derivados de las normas reglamentarias de la Unión Europea, a cuyo efecto se tramitan las subvenciones previstas en los planes.

## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 45 MENDIAK

**Basoko suteei aurrea hartzea eta mendiak haietatik babestea** eta basoen osasun egoeraren jarraipena – hala dagokionean, izurri eta gaitzen tratamendua barne delarik– Arabako mendien baso kudeaketaren atal garrantzitsu bat dira.

Zerbitzu honek egiten dituen gainerako jarduerak honako hauek ditugu: ehiza eta arrain populazioak aztertzea, beraien ustiapena planifikatzea, ehiza eta arrantza federazioekin eta ehiztarien eta arrantzaleen elkarteekin lankidetzan aritzea, eta zaintza lana egitea, landa ingurunearen eta ingurune urtarraren baldintzak basoko bizitza garatzeko egokiak izan daitezzen.

### **II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA**

Ondoren programaren helburu bakoitzari esleitu zitzaion zenbakiaren arabera azalduko dugu helburu horren gauzatze maila.

#### Baso jabetza publikoa ziurtatzea.

Baso jabetza publikoa babesteko, aurrera egin da katalogatutako mendien mugapeneko espedienteen administrazio ebazpenerako prozeduran, eta hala gertatu da Zuazako Administrazio Batzarraren mendi publikoarekin; han, mendian bertan mugatu eta zedarritzeko lanetan laguntza teknikoa eman da. Horrez gain, Arreoko eta Viloriako Administrazio Batzarraren mendi publikoak bereizteko lerro komunaren tramitazioa egin da. Era berean, Bergantzuko eta Pagoetako onura publikoko mendietan lerro banatzailea mugatzeko espedientea tramitatzen jarraitu da, eta gauza bera Munaingo Administrazio Batzarraren mendietan,

#### Baso sute, izurrite eta gaitzak eragozte.

Mendi publiko askotan basoetako suteei aurrea hartzeko eta suteak ebakitzeko eremuak mantentzeko baso obrak eta lanak egin ziren. Zaintza taldeak alerta egoeran egon ziren arrisku maila neurrizkoa edo handiagoa izan zen egunetan. Talde horiek 19 sute itzaltzeko lanak egin zituzten. Suteek eragindako basoko azalera guztira 15,17 hektarea izan da. Azalera horren heren bat mendi zuhaizdunari dagokio, eta beste zatia sastrakadiko eta belar bazkalekuko azalerari. Hortaz, oso datu ona

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MONTES

La **prevención y defensa del monte** contra los incendios forestales y el seguimiento del estado sanitario de los bosques, incluyendo en su caso el tratamiento de plagas y enfermedades, constituyen una parte importante de la gestión forestal de los montes alaveses.

El estudio de las poblaciones cinegéticas y piscícolas, la planificación de su aprovechamiento, la colaboración con las Federaciones de Caza y Pesca y las Asociaciones de Cazadores y Pescadores, así como la vigilancia y mantenimiento de las condiciones apropiadas del medio rural y acuícola para el desarrollo de la vida silvestre completan las actividades de este Servicio.

### **II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS**

A continuación exponemos el correspondiente grado de cumplimiento en función del número que se le asignó a cada objetivo del Programa.

#### Asegurar la Propiedad Pública Forestal.

La defensa de la Propiedad Pública Forestal se materializó en el avance en el procedimiento de resolución administrativa de expedientes de deslinde de montes catalogados, como sucedió con el monte público de la Junta Administrativa de Zuaza, con la asistencia técnica al deslinde y amojonamiento dada en el mismo monte, así como en la tramitación de la línea de la línea común de partición de los montes públicos de las Juntas Administrativas de Arreo y Viloria. Se continuó igualmente con la tramitación del expediente de deslinde de la línea divisoria en MUPs de Berganzo y Payueta, así como de los montes de la Junta Administrativa de Munain,

#### Evitar incendios, plagas y enfermedades forestales.

Se realizaron obras y trabajos selvícolas de prevención de incendios forestales, de mantenimiento de áreas cortafuegos en numerosos montes públicos. Los retenes de vigilancia estuvieron en situación de alerta durante los días en los que el nivel de riesgo fue igual o superior a moderado. Se atendieron por estos mismos equipos los trabajos de extinción de 19 incendios forestales. La superficie forestal total afectada por los incendios fue de 15,17 hectáreas, de la que una tercera parte

## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 45 MENDIAK

da suteen kopuruari eta kaltetutako baso azalerari dagokienez. Hala ere, zaila izango da datozen urteetan kopuru horiek errepikatzea, are gehiago klima aldaketari buruzko perspektibekin, hori faktore erabakigarria izango baita baso suteak gertatzeko. Halaber, baso suteetan esku hartzeko prozedura onartu da.

Prebentzio ekintzen artean sartzen dugu, orobat, baso nekazaritzako lanetan suaren erabilera kontrolatzea. Horrexetarako izapidetu ziren, hain zuzen, erreketak kontrolatu eta 1.041 baimen.

Prebentzio ekintzen artean sartzen dugu, orobat, baso nekazaritzako lanetan suaren erabilera kontrolatzea. Horrexetarako izapidetu ziren, hain zuzen, erreketak kontrolatu eta ia-ia mila baimen.

**Basoko osasunari** dagokionez, pinu beldarraren populazioak kontrolatzeko borroka izan da ardatza.

Helikoptero baten bidez aireko tratamendu bat egin da, *Bacillus thuringiensis*-ekin (*kurstaki* bar.) formulatutako produktu bat erabiliz. Guztira 801,3 hektareatan jardun zen; horietatik 161,2 hektarea Zuhatsu Kuartango aldean, batez ere oso adin txikiko pinudiak eta gainerakoa Okondoko eta Laudioko kantauriar isurialdean.

Bestalde, borroka integratua sustatzeko asmoz, hegazti intsektujaleentzat 100 kutxa habia erosi dira. Basozainek aurreko urteetan jarritako habiak aztertu dituzte, kutxa horien okupazioaren portzentajea zein den jakiteko.

Gai hori beti berebizikoa izan da basoen kudeaketa jasangarrian, baina gaur egun kezken iturri da. Gipuzkoan eta Bizkaian onddo defoliatzaile batek kalte handi-handiak eragin ditu pinudietan, batez ere *Insignis* pinuetan. “Zerrenda marroiaren onddoa” izenaz ezagutzen den onddo horren erruz, orain arte landaketa asko hil dira edo beste asko moztu behar izan dira, dagoen egurra aprobetxatu ahal izateko zuhaitzak hil eta egurra ustelduraren ondorioz alferrik galdu aurretik.

Egoera halakoa izanik, basogintzako aholkularitzako

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MONTES

correspondía a monte arbolado, y la otra parte a superficie de matorral y pasto herbáceo, lo que viene suponiendo un dato muy favorable en cuanto al número de incendios y superficie forestal afectada. Estas cifras, sin embargo, son de difícil repetición en años venideros, máxime con las perspectivas de cambio climático, factor decisivo en el desarrollo de los incendios forestales. Se aprobó, así mismo, el procedimiento de intervención en incendios forestales.

Entre las acciones preventivas incluimos, también, el control del uso del fuego en operaciones agroforestales, para lo que se tramitaron 1.041 autorizaciones de quemas controladas.

Entre las acciones preventivas incluimos, también, el control del uso del fuego en operaciones agroforestales, para lo que se tramitaron cerca de un millar autorizaciones de quemas controladas.

En lo referente a **sanidad forestal** se centró en la lucha para el control de poblaciones de la procesionaria del pino.

Se realizó un tratamiento aéreo con helicóptero con un producto formulado a base de *Bacillus thuringiensis* var. *kurstaki*. Se trabajó sobre un total de 801,3 ha; 161,2 ha de ellas en la zona de Zuazo de Kuartango, sobre todo, pinares de muy corta edad y el resto en la vertiente cantábrica en Okondo y Llodio.

Por otro lado, con intención de promover la lucha integrada, se ha procedido a la compra de 100 cajas nido para aves insectívoras. Los guardas forestales han revisado los nidos colocados en años anteriores para conocer el porcentaje de ocupación de estas cajas.

Este tema ha sido siempre trascendental en la gestión forestal sostenible pero, en estos momentos, es fuente de preocupaciones. Gipuzkoa y Bizkaia tienen un nivel muy elevado de daños causados por un hongo defoliador en pinares, sobre todo pino *Insignis*. Este hongo conocido como “hongo de la banda marrón” está causando la muerte de muchas plantaciones o la tala de otras muchas para poder aprovechar la madera existente antes de su muerte y sea inservible por pudrición.

En este contexto, dentro del Grupo Asesor Técnico

## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 45 MENDIAK

talde teknikoaren barruan, basogintzaren sektoreko engranaje batzuk eta besteak harremanetan jartzeko eta koordinatzeko duela urtebete gutxi gorabehera sortutako talde horren barruan, Baso Osasuneko Adituen Talde bat sortu da.

Ikertzaileen, teknikarien eta administrazioko ordezkarien batasun horren bidez indarrak eta ezagutza batu nahi dira gai fitosanitarioei erantzuteko. Taldearen barruan Arabako Mendi Zerbitzua dago Arabaren ordezkari gisa.

### Mendi publikoak modu jasangarrian kudeatzea

Urteko 36 baso planen bitartez, 2017. urtean hurrengoak arautu ziren: egur aprobetxamenduak, egurketen aprobetxamenduak, mendi publikoetako laboreetarako eta belardietarako luberritze aprobetxamenduak, larreen aprobetxamenduak eta berezko birsorkuntzarako eremuak mugatzekoak. Betiere, helburu bikoitzarekin: alde batetik, baliabideetatik ahalik etekin handiena ateratzea eta horien garapen jarraitu edo iraunkorra egitea. Gainera, “Egur hil eta errodatuak” ustiatzeko 155 baimen izapidetu ziren.

“Erretako eta andeatutako eremuak lehengoratzeari” izeneko partida 2015etik aurrera jada ez da EGEF programarekin batera finantzatzen. Bada, 2017an, partida horren barruan, andeatutako eremuak lehengoratzeko ez zen proiekturik burutu, baina halako proiektuak (Montevite) 2018. urteari begira prestatzen aurrera egin da.

### Zumar iberikoen baliabide genetikoak kontserbatzeko eta hobetzeko programa Araban aplikatzea.

Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuak, Zumar iberikoen baliabide genetikoak kontserbatzeko eta hobetzeko Espainiako programaren berri izanik, Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari zumarraren grafiosiaren aurka erresistenteak diren *Ulmus minor*-en 5 klon diferente eskatu zizkion, espezie horien kontserbazioan laguntzeko eta Arabako probintziako hainbat tokitan nola moldatzen diren eta nolako eboluzioa duten aztertzeko.

Guztira 160 oin sustrai hutsetan eskatu ziren, eta

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MONTES

Forestal, grupo creado hace alrededor de un año para mantener en contacto y coordinar distintos engranajes del sector forestal, se ha creado un Grupo de Expertos en Sanidad Forestal.

Con la unión de investigadores, técnicos y representantes de la administración se pretende unir fuerzas y conocimiento para responder a cuestiones fitosanitarias. El servicio de Montes de Álava, en representación de Álava está integrado en el grupo.

### Gestionar de forma sostenible los Montes Públicos

Mediante 36 planes forestales anuales, se regularon en 2017 los aprovechamientos madereros, de leñas foguerales, de roturaciones para cultivos y prados en montes públicos, de pastos, de acotamiento de zonas para regeneración natural, procurando obtener la máxima renta de recursos, compatible con el sostenimiento continuado de los mismos (desarrollo sostenido o sostenible). Además se tramitaron 155 autorizaciones de aprovechamiento de “Leñas muertas y rodadas”.

Dentro de la partida de “Restauración Áreas quemadas y degradadas”, que desde el 2015 ya no está cofinanciada por el programa FEDER, en 2017 no se ejecutaron proyectos de restauración de áreas degradadas, si bien se fue avanzando en la confección de los mismos de cara al 2018 (Montevite).

### Aplicación en Álava del Programa de conservación y mejora de los recursos genéticos de los olmos ibéricos.

El Servicio de Montes de la Diputación Foral de Álava, siendo conocedor del Programa español de conservación y mejora de los recursos genéticos de los olmos ibéricos, solicitó al Ministerio de Agricultura y Pesca, Alimentación y Medio Ambiente 5 clones diferentes de *Ulmus minor* resistentes a la grafiosis del olmo, con el objeto de colaborar en la conservación de estas especies y estudiar su adaptación y evolución en varios puntos de la provincia de Álava.

En total fueron solicitados 160 pies a raíz desnuda

## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MENDIAK

**Programa:** 45 MONTES

113 oin loreontzietan; landare horiek 2018ko martxoaren hasieran landatu ziren titulartasun publikoko honako kokaleku hauetan:

y 113 pies en maceta que fueron plantados a comienzos de marzo de 2018 en las siguientes localizaciones de titularidad pública:

UDALERRIA MUNICIPIO	POLIGONOA POLÍGONO	LURZATIA PARCELA	ERAKUNDE TITULARRA ENTIDAD TITULAR	ETRS89X ETRS89X	ETRS89Y ETRS89Y	Landare zenbakia Nº de planta
Berantevilla Berantevilla	1	161_b	Berantevillako Administrazio Batzarra Junta Administrativa de Berantevilla	511782	4725931	140
Berantevilla Berantevilla	1	70_b	Berantevillako Administrazio Batzarra Junta Administrativa de Berantevilla	511227	4726193	14
Kanpezu Campezo	1	3781	Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarra Junta Administrativa de Sta. Cruz de Campezo	552076	4724197	70
Kanpezu Campezo	1	3782	Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarra Junta Administrativa de Sta. Cruz de Campezo	552087	4724198	
Asparrena Aspárrena	2	1625	Asparreneko Udala Ayuntamiento de Aspárrena	556184	4749368	7
Asparrena Aspárrena	2	766_B	Amezaga Asparreneko Administrazio Batzarra Junta Administrativa de Amézaga de Aspárrena	555156	4747144	21
Donemiliaga San Millán	3	566	Txintxetruko Administrazio Batzarra Junta Administrativa de Txintxetru	544429	4742445	7
Dulantzi Alegría-Dulantzi	2	89	Egiletako Administrazio Batzarra Junta Administrativa de Egileta	538363	4739783	4
Iruraiz-Gauna Iruraiz-Gauna	1	532	Alaitzako Administrazio Batzarra Junta Administrativa de Alaitza	548171	4741463	10

GUZTIRA / TOTAL: 273

Grafiosiaren aurka erresistenteak diren zumar landare plantas de Olmo resistentes a la grafiosis

### Mendi Publikoetan telekomunikazio estazioek eragindako okupazioak

2017an erregularizatu egin da Arabako telekomunikazio zentrorik garrantzitsuenak, Zaldiarangoak baso jabari publikoan egindako okupazioa, eta kanona kalkulatzeko metodologia orokorrean finkatu da mota horretako estazioek egindako gainerako okupazioetarako.

### **Laguntzak mendi publikoetan.**

Basogintzarako Laguntzen Planaren bitartez, basogintzako hainbat motatako jarduketetarako laguntza eman zen. Laguntza horien onuradunak **Arabako 93 entitate publiko** izan ziren: Udalak, Administrazio Batzarrak eta komunitateak eta

### Ocupaciones por estaciones de telecomunicaciones en Montes Públicos

En el año 2017 se ha regularizado la ocupación en dominio público forestal por el centro de telecomunicaciones más importante de Álava, de Zaldiaran, fijando la metodología del cálculo del canon, en general, para el resto de las ocupaciones por estaciones de este tipo.

### **Ayudas en Montes Públicos.**

A través del Plan de Ayudas Forestales, se auxiliaron actuaciones forestales de diversa índole en montes públicos de las que resultaron beneficiarias **93 entidades públicas alavesas**, entre Ayuntamientos, Juntas Administrativas y

## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 45 MENDIAK

Partzuegoak, eta honako eskaera hauek izan ziren: eskaera bat, 8.04 neurrirako (basoetan kalteek, suteek edo hondamendi naturalek eragindako kalteak konpontzea); 19 eskaera 8.03 neurrirako (mota bereko kalteak konpontzea); 14 eskaera 8.01 neurrirako (basotzea eta baso azalera sortzea); 2 eskaera 8.06 neurrirako (Basogintzako teknologietan inbertitzea) eta 67 eskaera 4.03 neurrirako (Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretarako inbertsioak).

Arabako erakunde publikoek hirigune, hiri inguru eta narriatutako aldeetan egiten dituzten landatze kanpainen barruan, eta zuhaitzaren eguna, eskola landaketak eta bestelakoak ospatzekoak asetzeko lurralde barruan, Mendi Zerbitzuak baso landareak eman dizkie AFAko beste zerbitzu batzuei eta 100 bat toki erakunderi.

Landarez hornitzeaz gain, Mendi Zerbitzuak, aurreko ekitaldietan bezala, lagundu egin die erakunde publikoei eta udalei –gehiago edo gutxiago–, landaketei buruzko aholkua emanaz eta plangintza eginez, lursailak prestatuz, landareak garraiatuz nahiz landaketa lanak eginez.

Arabako Lurralde Historikoko onura publikoko mendietan ibilgailu motordunen zirkulazioa arautzen duen 10/2010 Foru Dekretua aplikatuz, 12 baimen eman ziren Arabako mendi publikoetatik ibiltzeko.

Horrez gain, 320 **erabilera aldaketa** eskaera izapidetu ziren, lurralde historikoan.

### **Mendi pribatuen kudeaketa jasangarrirako laguntzak**

Basoko Laguntza Planaren bitartez 134 eskaerari dirulaguntza eman zitzairen. Sexuen arabera, onuradunak 47 emakume eta 79 gizon izan ziren; 8 onuradun, berriz, pertsona juridikoak izan ziren.

Arestikoetatik hauek onartu ziren:

- 11 laguntza basoen kudeaketa jasangarrirako planak idazteko. (7 gizonenak eta 4

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MONTES

comunidades y Parzonerías, que suponen 1 solicitud para la medida 8.04 de reparación de daños causados a bosques por daños, incendios o desastres naturales; 19 solicitudes para la medida 8.03 de prevención de daños del mismo tipo; 14 solicitudes para la medida 8.01. de forestación y creación de superficies forestales; 2 solicitudes para la medida 8.06 de inversiones en tecnologías forestales y 67 solicitudes para la medida 4.03 de inversiones en infraestructuras para el desarrollo, modernización o adaptación del sector forestal.

Dentro de las campañas de plantaciones que las Entidades públicas alavesas llevan a cabo anualmente en los medios urbanos, periurbanos, áreas degradadas así como para atender las celebraciones del día del árbol, las plantaciones escolares y de otras índoles en sus jurisdicciones territoriales, el Servicio de Montes ha proporcionado planta forestal a otros Servicios de la DFA y a unas 100 Entidades Locales.

Además de este suministro de planta, el Servicio de Montes, como en anteriores campañas, ha colaborado en mayor o menor grado con las Entidades públicas y Ayuntamiento, participando en el asesoramiento y planificación de las plantaciones, preparación del terreno, transporte de planta y trabajos de plantación.

En aplicación del Decreto Foral 10/2010 que regula la circulación de vehículos a motor por los montes de utilidad pública del T.H de Álava se expidieron 12 autorizaciones para la circulación por montes públicos alaveses.

Se tramitaron además 320 solicitudes de **cambios de uso** en el Territorio Histórico.

### **Ayudas a la Gestión Sostenible de los Montes particulares**

A través del Plan de Ayudas Forestales se subvencionaron 134 solicitudes, repartiéndose por sexos las personas beneficiarias en 47 mujeres y 79 hombres, mientras que 8 beneficiarias fueron personas jurídicas.

De las anteriores se aprobaron:

- 11 ayudas para la redacción de Planes de Gestión Forestal Sostenible. ( 7 hombres y 4 mujeres)

## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 45 MENDIAK

emakumeenak)

- 47 laguntza basotzeko eta baso azalerak sortzeko (28 gizonenak, 15 emakumeenak eta 4 beste forma juridiko batzuenak)
- 69 laguntza basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzeko (40 gizonenak, 25 emakumeenak eta 4 beste forma juridiko batzuenak)
- 7 laguntza haizeteek kaltetutako basoak lehengoratzeko (4 gizonenak eta 3 emakumeenak)

Titulartasun partikularreko mendi horietako aprobetxamenduaren kontrolaren zati gisa, zuhaitzak mozteko 831 baimen tramitatu ziren; beraz, igoera nabarmena egon da aurreko urtearekin alderatuta.

### Ehiza eta arrantza modu jasangarrian kudeatzea

Hona hemen Arabako lurralde historikoan ehiza arautzen duten manu nagusiak: ehizaren urteroko foru agindua, orkatzen, oreinen eta espezie migratzaileen (usoak eta birigarroak postu finkotik) ehiza aprobetxamendua arautzen duten foru aginduak eta Kuartangoko Ehiza Esparru Soziala arautzen duen Foru Agindua.

2016-2017 denboraldian indarrean jarraitu du Kuartangoko ehiza barruti soziala osatzen duten lurralde alokatzeko kontratuak, dagokion ehizaren kudeaketarekin. Amaitu berri den denboraldian oilagorrek ehizatzeke guztira 320 baimen eman dira (231 txanda murriztuan eta 89 txanda librean); beraz, 2016ko eta 2015eko kopuruei eutsi zaie. 2017an ere bertako ehiztariei ez zitzaizkien eskaini faisaia ehizatzeke baimenik, denboraldi horretatik aurrera halako ehizarik ez delako egin.

Halaber, 2017an lankidetzaren hitzarmen bi egon dira indarrean Araban dauden ehiza barrutien elkarte biek - ARABA CAZADORES GESTIÓN eta ARTIO -; guztira 133 barruti biltzen dituzte (guztien % 90).

Bestalde, ehiza larriko espezieen kudeaketaren barruan, eta populazioen egoera aztertu ondoren,

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MONTES

- 47 ayudas para la forestación y creación de bosques (28 hombres, 15 mujeres y 4 otras formas jurídicas)
- 69 ayudas para la prevención de los daños causados a los bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes (40 hombre, 25 mujeres y 4 otras formas jurídicas)
- 7 ayudas para la restauración de bosques dañados por vendavales (4 hombres y 3 mujeres)

Como parte del control de los aprovechamientos en estos montes de titularidad particular, se tramitaron 831 autorizaciones de corta de arbolado, lo que supone un significativo aumento respecto al año anterior.

### Gestionar de Forma Sostenible la Caza y la Pesca

Las principales disposiciones que regulan la caza en el Territorio Histórico de Álava son la Orden Foral Anual de Caza y las Órdenes Forales reguladoras del aprovechamiento cinegético de corzos, ciervos y especies migratorias, como palomas y malvices desde puestos fijos, así como la Orden Foral que regula el Coto Social de Kuartango.

Durante la temporada 2016-2017 ha seguido vigente el contrato de arrendamiento de los terrenos que constituyen el Coto Social de Kuartango, con la subsiguiente gestión cinegética. Durante la temporada recién finalizada se ha expedido un total de 320 (231 en turno restringido y 89 en turno libre) permisos para la caza de becadas, lo que supone mantener las cifras del año 2016 y 2015. En el año 2017 siguen sin ofertarse permisos de caza de faisán a las personas cazadoras locales, al no practicarse a partir de esta temporada ese tipo de caza.

También en 2017 han estado vigentes dos convenios de colaboración con las dos asociaciones de cotos de caza existentes en Álava - ARABA CAZADORES GESTIÓN y ARTIO - que abarcan un total de 133 acotados (90 % del total).

Por otra parte, dentro de la gestión de las especies de caza mayor y una vez analizado el estado de sus

## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 45 MENDIAK

3.458 basurde harrapatu ziren ehiza denboraldian egindako uxaldietan.

Gaueko itxaronaldiei eta kalteengatiko uxaldiei dagokienez, 130 uxaldi eta 389 itxaronaldi egin dira; horrek esan nahi du aurreko kanpainarekin alderatuta uxaldietan gorakada nabarmena egon dela eta itxaronaldietan gorakada esponentziala egon dela.

Azken kanpainan (16-17) guztira basurdeen 1464 uxaldi baimendu dira eta orkatz arrak harrapatzeko 720 kupo eman dira, baita orkatz emeak harrapatzeko 720 kupo eta orein arrak harrapatzeko 100 eta orein emeak harrapatzeko 100 ere.

Era berean, ehiza espezieek, hala nola oreinak, orkatzak, basurdeak eta azeriak eragindako trafiko istripuei buruzko 324 informazio txosten izapidetu ditu Sailak; beraz, gorakada nabarmena egon da aurreko kanpainarekin alderatuta.

Halaber, administrazio arloan, hainbat baimenentarako espedienteak tramitatu dira, besteak beste, hainbat espedienteren bitartez:

Ehizagaien askapenak: galeperren 3 espediente, faisaien 19 espediente eta eperren espediente bat.

Uso postuen aldaketa: 23

Huroak edukitzeko: 32

Untxiak huroekin ehizatzeke: 8

Ehiza laginketak egiteko: 1

Arkuzko ehiza egiteko: 2

Baimendutako ehiza txapelketak: 27

Kuartangoko Gizarte Barrutian ehiza piezek sortutako kalteengatiko espedienteak: 4.

Halaber, ehizari eta arrantzari buruzko beste txosten asko egitea.

Azpimarratu behar da ibaietako hondakinen arloan egondako aurrerabidea. Gainazaleko uren masetan gertatutako 5 isurketen berri eman zen, eta horien artean batean informazio ugari prestatu behar izan zen. Halaber, isurketetan jarduteko jarraibideen prozedura ezartzeko hobekuntzak egin ziren, Ingurumen Fiskaltzarekin harremanetan egonik.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MONTES

poblaciones, se capturaron 3.458 jabalíes en las batidas realizadas dentro de la temporada de caza.

En cuanto a las esperas nocturnas y batidas por daños, se han dado 130 batidas y 389 esperas, lo que supone un aumento significativo en batidas y exponencial en esperas respecto a la anterior campaña.

En la última campaña 16-17 se ha autorizado un total de 1464 batidas de jabalí y se han concedido 720 cupos de captura de corzos, 720 de corzas, 100 de ciervos y 100 de ciervas.

Igualmente, desde la Sección se han tramitado 324 expedientes informativos sobre accidentes de tráfico ocasionados por especies cinegéticas como ciervo, corzo, jabalí y zorro, lo que supone un considerable aumento respecto a la campaña anterior.

Asimismo, a nivel administrativo, se han tramitado expedientes de autorizaciones varias, entre otras, a través de diversos expedientes:

Sueltas cinegéticas: 3 exp. de codornices, 19 de faisanes y un exp. de perdices.

Modificación de puestos palomeros: 23

Para tenencia de hurones: 32

Para cazar conejos con hurón: 8

Para realizar muestreos de caza: 1

Para cazar con arco: 2

Campeonatos de caza autorizados: 27

Expedientes por daños de piezas de caza en el Coto Social de Kuartango: 4.

Así como la elaboración de otros numerosos informes sobre temas de caza y pesca.

Destacar sobremanera el avance que se produjo en materia de vertidos en ríos, informando 5 vertidos en masas de agua superficiales, de los que 1 de ellos supuso la elaboración de mucha información y la mejora en la procedimentalización de las pautas de actuación en vertidos, en contacto con la Fiscalía de Medio Ambiente.

## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 45 MENDIAK

Bestalde, dagozkien foru aginduen bidez, 23 ehiza barruti berritza baimendu da, Sailaren webgunearen edukiak hobetu dira, eta Miñoi Atalarekin eta ehiza barruti elkarteekin ehiza eta arrantzako asteko zaintaldee buruz informatu eta haiek koordinatu dira.

Ehiza eta arrantza esparruan indarrean den araudia ez betetzeagatik abiarazitako zehapen espedienteak direla eta, 2017an 42 salaketa egin ziren ehiza alorrean eta 35 arrantza alorrean.

Era berean, 27 kirol probak (% 270eko gorakada 2016arekin alderatuta) Arabako ehiza barrutietako ehiza jarduerarekin duten bateragarritasunari buruz informatu da.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak deialdia eginda eta Araban AFak antolatuta, Ehiztariaren Azterketa egin zen, bi deialdiei dagokienez.

Arrainen eremuan, Arrantzaren Foru Aginduaren bidez, arrantza kontinentalaren aprobetxamendua arautu zen 2017-2018 denboraldirako, eta amuarraina eta karramarroa arrantzatzekeo barrutietan aldi eta ordutegi baliodunak ezarri ziren, baita salmonido, ziprinido eta espezie exotiko inbaditzaileen zatiak eta zati libreak ere.

Foru Agindu horrek arrantzatzekeo aldien eta eremuen erregulazioa ezarri zuen. 2017an arrantzarako murrizketek jarraitu zuten, muskuilu zebraren izurritearen ondorioz, eta AFak, Eskalmendiko bulegoetan, salabardoak desinfektatzeko zerbitzua ematen jarraitu zuen. Salabardo horiek derrigorrez erabili behar dituzte Zadorrako barrutiko karramarro arrantzaleek, espezie inbaditzaile horren hedatzea ahalik eta gehien mugatzeko.

Espezie Inbaditzaileen Espainiako Katalogoa onartzen duen 630/2013 Errege Dekretuak indarrean iraun zuenez, Arrantzaren Foru Agindua araudi berrira egokitu behar izan zen. Orobat eragin zuen amuarraina eta karramarroa arrantzatzekeo herritarren eskuera jarri ziren baimen motetan ere. Ildo horretatik, karramarroa arrantzatzekeo 3.016 baimen eman ziren gutzira eta amuarraina

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MONTES

También, mediante las correspondientes órdenes forales, se ha autorizado la renovación de 23 cotos de caza, se ha realizado la mejora de los contenidos de la página Web de la Sección y se ha informado y coordinado con la Sección de Miñones y con las asociaciones de cotos de los retenes semanales de Caza y Pesca.

En cuanto a la apertura de expedientes sancionadores por incumplimiento de la normativa vigente en materia de caza y pesca, durante 2017 se formularon 42 denuncias de caza y 35 de pesca.

Igualmente, se ha informado acerca de la compatibilidad de 27 (aumento del 270 % respecto al año 2016) pruebas deportivas con la actividad cinegética en los cotos de caza de Álava.

Por otra parte, convocado por el Departamento de Agricultura del Gobierno Vasco y organizado en Álava por la DFA, se celebró del Examen del Cazador, en lo referente a sus dos convocatorias.

En el ámbito piscícola, mediante la Orden Foral de Pesca, se reguló el aprovechamiento de la pesca continental para la temporada 2017-2018, estableciéndose tanto los períodos como los horarios hábiles en los distintos cotos de pesca de trucha y de cangrejo, tramos de salmónidos, ciprínidos, especies exóticas invasoras, así como los tramos libres.

Dicha Orden Foral estableció la regulación de los períodos y zonas de pesca. En 2017 se continuó con las restricciones a la pesca a causa de la plaga de mejillón cebra y la DFA, en sus dependencias de Eskalmendi, continuó dando un servicio de desinfección de reteles, de uso obligatorio para los pescadores de cangrejo del coto del Zadorra, con el fin de limitar dentro de lo posible la expansión de esta especie invasora.

El mantenimiento en vigor del Real Decreto 630/2013 que aprueba el Catálogo Estatal de Especies Invasoras, supuso adaptar la Orden Foral de Pesca a la nueva normativa. Igualmente, tuvo sus repercusiones en el tipo de permisos de pesca de trucha y de cangrejo puestos a disposición del público. En este sentido, se expidieron un total de 3.016 permisos de pesca de cangrejo y 612

## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 45 MENDIAK

arrantzatzeko 612 baimen, hurrenez hurren. 2  
arrantza txapelketa baimendu ziren.

2017. urtearen amaieran 7.833 ehiza lizentzia eta  
7.276 arrantza lizentzia zeuden.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MONTES

permisos de trucha, respectivamente. Se autorizaron  
2 campeonatos de pesca.

El año 2017 terminó con 7.833 licencias de caza y  
7.276 licencias de pesca.